



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/10/05

## **Batzar Nagusietako osoko bilkurak Batzarretako taldeen ebazpenerako hamaika proposamen onetsi ditu**

Gaur goizean Gernikako Batzarretxean egin dan Bizkaiko Batzar Nagusien osoko bilkureak, joan dan asteko Politika Orokorreko saioaren jarraipena izan danak, Batzarretako taldeek aurkeztu dituen ebazpenerako hamaika proposamen onetsi ditu, eztabaidarako Gernikara heldu diran 24 proposamenen artean. Onetsi diranetako bost Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek batera aurkeztu dituenak dira, eta beste bost transakzionatuak izan dira, lau Talde Mistoagaz eta beste bat Bizkaiko Talde Popularragaz. Bukatzeko, osoko bilkureak popularren jatorrizko beste proposamen bat be onartu dau.

Batzarretako ekimenek, Unai Rementeria Bizkaiko Ahaldun Nagusiak orain astebete Gernikan landu ebazan hainbat gai jasoten ditue. Saio horretan, legealdiko Politika Orokorreko bere lehenengo osoko bilkuran, bere gobernuak gertuko etorkizunerako dituan konpromisoak azaldu ebazan. Bere gain hartu ebazan erronkei, Bizkaiko Batzarrek gaur onetsi dituen ebazpenak gehituko jakez.

### **ONETSI DIRAN EKIMENAK**

Osokoan onetsi diran ebazpenen artean, Aldundiko gobernuak eusten daben taldeek aurkeztu dituen bost ekimen dagoz. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeek, kontratazino publikoan oinarritzko lan eskubideak bermatuko dituen, lanbakoan prestakuntzea eta “ekonomia zidarreztatua” eta “gizarte zerbitzuen karterea” bultzatuko daben eta lurraldeko garraio publikoan tarifen bateratzea sustaiko daben neurriak bultzatuko dituen aginduak onetsi ditue, Aldundiari emon beharreko aginduak, hain zuzen be.

Holan, talde bien ekimen baten bitartez, Bizkaiko Batzar Nagusiek agindua emoten deusie Bizkaiko Foru Aldundiari, lurraldeko Udalakaz koordinata, “gizarte zerbitzuen karterea martxan jarteko beharrean aurrera egin daian, une honetako errealidadea ulertuz eta eskubide subjektiboak bermatuz”.

Gainera, osokoak agindua emon deutso Foru Aldundiari, Bizkaiko Garraioaren Mobikortasun Agintaritzan egiten ari dan beharrak bultzatu daizan “tarifen integrazinorako sistema sortzeko eta garraio publiko eskintzea koordinetako, batez be”.

Batzarrek emondako beste agindu bat, Ahaldun Nagusiak joan dan asteko osokoan aitatu eban “ekonomia zidarreztatua” terminoagaz dago erlazionata. Jeltzaleen eta sozialisten testuan eskaria egiten jako Aldundiari, lurraldean “ekonomia zidarreztatua” bultzatzerazuzendutako estrategia egiteari “lehentasuna” emon deion, termino hori barrikuntzaren eta garapen ekonomikoaren ikuspuntutik aukera moduan, eta gure nagusien bizitza kalidadea eta ongizatea hobetzeko apustu moduan ulertuz”.

Horrez gain, Aldundiko gobernuak eusten daben talde biek beste ekimen bat be atara dabe aurrera, Aldundiak “lan barik dagozan beharginen prestakuntzea eta koalifikazinoa bultzatu



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

daian”, produkzinoko sektoreen eskariei eta etorkizuneko enpleguaren beharrei erantzungo deuten kalidadeko enplegua bultzatzeko helburuz.

Horregaz erlazionata, Batzarrek beste ekimen bat be onartu dabe, Aldundiak lurraldeko enpresa txikiek eta ertainek kontratazino publikoan daukien partaidetzea indartu daian, “oinarrizko lan eskubideak bermatuko dituen neurrien bitartez, gizarte, etika eta ingurumen arloetako erespideetan oinarritutako beste politika publiko batzuk barruan hartuz eta bultzatuz”.

#### AKORDIOAK TALDE MISTOAGAZ ETA PPGAZ

Beste alde batetik, Talde Mistoak akordioa lortu dau EAJ-PNV eta PSE-EE taldeakaz, aurkeztu dituan bost ebazpenetatik lau aurrera atarateko, horreen eukietan aldaketak sartuz. Horreetako batean, eskaria egiten jako Aldundiari, laneko eta familiako kontziliazinoa bultzatzeko eta lurraldearen gaur egungo eta etorkizuneko errealidade demografikoa arintzeko Eusko Jaurlaritzak definidu dauen strategiagaz “bat egin daian”.

Bizkaiko Batzarrek onartu daben beste ebazpen transakzional bat Bizkaiko autonomoei eta enpresa txikiei eta ertainei zuzendutako “laguntza zerbitzua” martxan jartearen ingurukoa da, batez be urteetako ibilpidea dabenei eta ekintzaitzarako programa publikoetatik datozanei zuzendutakoa.

Eta transakzionautako talde mistoaren beste ebazpen proposamen biak, Arte Ederretako Museoa eta Itsasadar Museoa egin beharreko hainbat hobekuntzaren gainekoak dira. Hiru taldeek onetsi dituen testuek, alde batetik, beste erakunde batzuek azkeneko akordioak bultzatzearen aldeko apustua egiten dabe, Arte Ederretako Museoko bildumen “balioan jarte handiagoa izateko” eta, bestetik, Bilboko Itsasadar Museoa programazioaren eta eukien “eguneratzea” lortzeko.

Bizkaiko Talde Popularragaz lortutako akordioari jagokonez, EAJ-PNV eta PSE-EE taldeek sintonia lortu dabe enpleguaren atalean. Hiru taldeek, Bizkaia Goazen 2030 strategiaren lehenengo jarduketa ardatzean –“Bizkaia jarduera ekonomikoagaz eta enpleguagaz”– jasoten diran ekintzen “garapenerako” eta horren ostean egin behar dan “ebaluazinarako” ebazpena adostu dabe, “gure lurraldearen erronka nagusiari, langabeziari” aurre egin ahal izateko.

Onartu dan azkenengo ekimenak PP taldearen sinadurea daroa. Bertan eskaria egiten jako Aldundiari, grebea indarrean dagon epealdietan, “zerbitzuaren kalidadea eta egoitzetako eta eguneko zentroetako erabiltzaileei arreta egokia eskintzen jakela bermatu daian”.

#### ONARTU EZ DIRAN EKIMENAK

Osoko bilkureak, barriz, atzera bota ditu Batzarretako beste talde biek aurkeztu dituen ekimen guztiak. Hasiere batean EH Bilduk bost defendidu ditu, eta Podemos Bizkaiak lau, baina, azkenean bi, egoitzetan dagozan pertsona nagusien arretearen gainekoak, batera aurkeztu ditue talde biek.

EH Bilduk barrero adierazo dau beharrezkoak dirala iruzur fiskalaren kontrako burrukarako “behatokia” eta garraio arloko “tarifa bakarra”, eta baita sentsibilizazino handiagoa hondakinen



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

bilketa selektiboan be, 2017an halan eskatzen daben udalerrri “guztiei” bosgarren edukiontziairen diru-laguntzinoa emonez.

Podemos Bizkaia taldeak, bere aldetik, Energiaren Estrategia Iraunkorra 2020 izenekoa bultzatzea, herritarren partaidetzarako foru araua sustetea eta iruzur fiskalaren kontrako neurriak indartzea eskatu dau.

Bizkaiko Batzarrek onartu ez dituen ekimenen artean PP taldearen hiru be badagoz. Horreetan, popularrek familiei laguntzeko plana, metroaren 4. eta 5. lineak eregiteko bultzadea eta gaur egungo esparru juridikoaren aldeko jokaerea jasoten ziran.

Batzarrek ez dabe onartu Talde Mistoaren proposamen bat. Proposamen horretan “akordioa” eskatzen zan administrazio publikoen artean, Abiadura Handiko Trenak Bizkaiko uriburura izan behar dituan sarbideak eregiteko.

#### NAGUSIEN EGOITZAK ETA GUFEN

Sindikatuak lurraldeko nagusien egoitzetan eta eguneko zentroetan orain arte aurrera eroan daben greba eztabaidaren parte handian egon da presente. Osoko Bilkurak ez ditu onartu EH Bildu eta Podemos Bizkaia taldeek gai horregaz erlazionata batera aurkeztu dituen proposamen biak.

Talde biek eskaria egin dabe lurraldeko egoitzetako bertaratzeen ratioak mendekotasun mailaren arabera arautzeko, eta baita behargin kopurua handitzeko be, arretaren kalidadea hobetu ahal izateko. Beste proposamen batean, eskaria egin deusie Aldundiari, “epe laburrean, ahal diran enplegu publiko deialdi guztiak” gauzatu daizan GUFEn, arreta zuzeneko lanpostuei “lehentasuna” emonez.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
05/10/2016

## **El pleno de Juntas Generales aprueba once propuestas de resolución de los grupos junteros**

El pleno de Juntas Generales de Bizkaia celebrado esta mañana en la Casa de Juntas de Gernika, continuación de la sesión de Política General de la semana pasada, ha aprobado once propuestas de resolución presentadas por los grupos junteros, de un total de 24 que han llegado hoy a la villa foral para su debate. Cinco corresponden a las presentadas de manera conjunta por los grupos Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, y otras cinco han sido transaccionadas, cuatro con el grupo Mixto y otra con el grupo Popular Vizcaíno. Finalmente, el pleno ha aceptado otra propuesta original de los populares.

Las iniciativas parlamentarias recogen algunas cuestiones que fueron tratadas por el diputado general de Bizkaia, Unai Rementeria, hace una semana en Gernika en donde desgranó, en su primer pleno de Política General de la legislatura, los compromisos de su gobierno para un futuro próximo. A los retos que asumió, se le unirán ahora las resoluciones acordadas hoy por el Legislativo vizcaíno.

### **INICIATIVAS APROBADAS**

Entre las resoluciones aprobadas por el pleno se encuentran las cinco iniciativas presentadas por los grupos que sustentan al gobierno de la Diputación. Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos han sacado adelante mandatos para el Ejecutivo que contemplan el impulso de medidas que garanticen los derechos laborales básicos en la contratación pública, la formación de desempleados, el impulso de la “economía plateada” y de una “cartera de servicios sociales”, y la integración tarifaria en el transporte público del territorio.

Así, a través de una iniciativa de ambos grupos, las Juntas Generales de Bizkaia instan a la Diputación Foral de Bizkaia a que, de forma coordinada con los ayuntamientos del territorio, “avancen en la puesta en marcha de la cartera de servicios sociales entendiendo la realidad del momento y garantizando los derechos subjetivos”.

Asimismo, el pleno ha instado a la Institución foral a que impulse los trabajos de la Autoridad de Movilidad del Transporte en Bizkaia “especialmente para la creación de un sistema de integración tarifaria y para la coordinación de la oferta de transporte público”.

Otro mandato parlamentario tiene que ver con el término “economía plateada” acuñado por el diputado general en el pleno de la semana pasada. En el texto de nacionalistas y



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

socialistas, se pide a la Diputación que establezca como “prioritaria” la elaboración de la estrategia relativa a desarrollar en el territorio la “economía plateada, entendiéndola como una oportunidad desde el punto de vista de la innovación y el desarrollo económico, y una apuesta para la mejora de la calidad de vida y el bienestar de nuestros mayores”.

Las dos formaciones que sustentan al Gobierno foral han sacado adelante, además, una iniciativa para que la Diputación “fomente la formación y recualificación de trabajadores y trabajadoras en desempleo”, con el objeto de favorecer el empleo de calidad que dé respuesta a las demandas de los sectores productivos y las necesidades del empleo de futuro.

En este sentido, el hemiciclo ha avalado otra iniciativa encaminada a que la Diputación potencie la participación de las pymes del territorio en la contratación pública mediante “medidas que garanticen los derechos laborales básicos, incluyendo y fomentando otra serie de políticas públicas desde criterios sociales, éticos y medioambientales”.

#### ACUERDOS CON GRUPO MIXTO Y PP

Por otra parte, el grupo Mixto ha llegado a un acuerdo con PNV y PSE-EE para sacar adelante cuatro de sus cinco resoluciones presentadas, con modificaciones en el contenido de las mismas. En una de ellas, se insta a que la Diputación “coopere” con la estrategia definida por el Gobierno Vasco en orden a favorecer la conciliación de la vida laboral y familiar, y a paliar la realidad demográfica presente y futura del territorio.

Otra resolución transaccional aprobada finalmente por la Cámara vizcaína se refiere a la puesta en marcha de “un servicio de apoyo” a los autónomos y pymes vizcaínas, especialmente a aquellas con años de trayectoria y que provienen de programas públicos de emprendimiento.

Y las otras dos propuestas de resolución del grupo mixto transaccionadas se refieren a diversas mejoras en los museos bilbaínos del Bellas Artes y Marítimo. Los textos acordados por los tres grupos apuestan, por un lado, por impulsar acuerdos con otras instituciones para “lograr una mayor puesta en valor” de las colecciones del Bellas Artes, y, por otro, lograr una “actualización” de la programación y contenidos del Museo Marítimo de Bilbao.

Por su parte, con el grupo Popular Vizcaíno, PNV y PSE-EE han llegado a una sintonía en el capítulo del empleo. Los tres grupos han acordado una resolución para el “desarrollo” y posterior “evaluación” de las acciones contenidas en el primer eje de actuación de la estrategia Bizkaia Goazen 2030 – “Bizkaia con la actividad económica y empleo”- con la finalidad de afrontar “el principal reto del territorio como es el desempleo”.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

La última iniciativa en prosperar llevaba la firma del PP. En ella, se solicita a la Diputación que durante los periodos de huelga, “garantice la calidad del servicio y una atención adecuada a los usuarios de residencias y centros de día”.

## INICIATIVAS RECHAZADAS

En cambio, el pleno ha desestimado todas las iniciativas presentadas por los otros dos grupos de la Cámara. EH Bildu defendía en un inicio cinco, y Podemos Bizkaia cuatro, aunque finalmente dos, referidas a la atención a las personas mayores en residencias, se han presentado de manera conjunta.

EH Bildu ha insistido en la creación de un “observatorio” para la lucha contra el fraude fiscal y de una “tarifa única” en el transporte, así como en una mayor sensibilización en la recogida selectiva de residuos mediante la subvención del quinto contenedor a “todos” los municipios que lo soliciten en 2017.

Por su parte, Podemos Bizkaia ha demandado el impulso de la Estrategia Sostenible de Energía 2020, una norma foral de participación ciudadana y aumentar las medidas contra el fraude fiscal.

Entre las iniciativas desestimadas por el parlamento vizcaino se encuentran también tres del PP en la que los populares pedían un plan de apoyo a las familias, el impulso para la construcción de las líneas 4 y 5 del metro, y un apoyo al marco jurídico actual.

La cámara territorial ha rechazado también una propuesta del grupo Mixto que demandaba un “acuerdo” entre las administraciones públicas para la construcción de los accesos del Tren de Alta Velocidad a la capital vizcaína.

## RESIDENCIAS E IFAS

La huelga que han mantenido hasta ahora los sindicatos en las residencias y centros de día del territorio ha estado presente en el hemiciclo en buena parte del debate. El pleno ha rechazado las dos propuestas presentadas conjuntamente por EH Bildu y Podemos Bizkaia que guardaban relación con este asunto.

Ambos grupos han solicitado que se regulasen los ratios de asistencias en las residencias del territorio en función del grado de dependencia, así como que se aumentase el personal para incrementar la calidad asistencial. En otra propuesta, han pedido que la Diputación materialice en el IFAS, “a corto plazo, las convocatorias de empleo público que le sean posibles”, dando “prioridad” a los puestos de atención directa.